

ARETXABALETAKO UDAL ERAIKUNTZAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO ETA LAN MERKATUAN SARTZEKO ARAZOAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK GIZARTERATZEKO LEHIAKETA IREKIAN AGINDU BEHAR DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

I. TITULUA

KONTRATUARI BURUZ ORO HAR

1.- Araubide juridikoa

Zerbitzuen kontratu administratiboaren izaera izango du kontratuak eta, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 7. artikulua adierazitakoaren arabera, Administrazio Publikoetako Kontratuena, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak berak eta garatzen dituen xedapenek arautuko dute kontratua, prestatu, adjudikatu, ondorioak izan eta iraungitzeari buruz, eta kasu guztietan orri hauetan eta kontratuaren Preskripzio Teknikoen Pleguaren baldintzek eta klausulek arautuko dute. Horien orde Zuzenbide Administrazioaren gainerako arauak arautuko dituzte eta, hala izan ezean, Zuzenbide Pribatuarenak.

Kontratua aplikatu edo interpretatzeko, hura betearazteko, aldatu, bete edo suntsiarazteko sor litezkeen auzi-arazoak Aretxabaletako Udalak erabakiko ditu, eta haren akordioak berehalaxe betearaziko dira.

Akordio horiek inpugnatzeko, kontentzioso administratiboa izango da Jurisdikzio aginpideduna.

2.- Kontratuaren helburua

Kontratu honen helburua da Aretxabaletako udalaren eraikuntzak garbitzeko zerbitzuak ematea eta lan merkatuan sartzeko arazoak dituzten zenbait kolektiboak gizarteratzeko politika aktiboa aurrera eramatea. Kontratuaren helburu den zerbitzuak ematea gutxieneko baldintza batzuetara egokituko da, eta horiek guztiak klausula teknikoaren orrietan zehaztu dira.

3.- Kontratuaren prezioa

Kontratuaren prezioa 171.200 eurokoa da kontratuko lehen urtean. Kopuru hori azpitik hobetu ahal izango dute eskaintzetan lizitatzailleek.

Lizitatzailleek egindako proposamenetan eta kopuru zehatzetan eta jakinean, eta eskaintako prezioetan, kontratua adjudikatuz gero, eragin guztietarako, hauek sartuta daudela ulertuko da beti: zenbait kontzeptu grabatzen duten zerga, gastu, tasa eta mota guztietako arbitrioerik dagozkien kuotak, eta bereziki (BEZ) Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta etekin industrialak.

4.- Finantzaketa

Administrazio Publikoetako Kontratuaren, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 67.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, kontratu hau betearaztetik Aretxabaletako Udalerako sortzen diren obligazio ekonomikoerik erantzuteko behar diren aurrekontu kredituak daudela jasoarazten da.

5.- Kontratuaren iraupena

URTEBETE dirau kontratuak, sinatzen den egunetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere LAU urte arte, beti ere alde biek argi eta garbi erabakiz gero lehen urtealdia amaitu baino lehen, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 198.1 artikulua ezartzen duen bezala.

6.- Prezioak berraztertzea

Aurreko urte naturaleko Kontsumorako Prezioen Indizean oinarriturik gaurkotuko da adjudikazio prezioa.

Lizitatzaille bakoitzak prezioak berraztertzeko proposamena egingo du, Estatuko Estatistika Erakundeak argitaratutako Kontsumorako Prezioen Indizean oinarriturik.

7.- Ordaintzeko modua

Epemugaturako hilez hil ordainduko da kontratuaren prezioa, zerbitzua abian jartzen denetik hasita. Dagozkien fakturak aurkeztu behar ditu kontratistak, eta zerbitzuaren arduradunak egiaztatuko ditu horiek, eta hala badagokio zuzendaritza organo aginpidedunak onartuko ditu.

Kontratatari entzun eta gero, kontratazioko zerbitzuak ez emateari edo behar ez bezala egiteari edo izan litezkeen santzioei dagozkien kopuruak murriztuko dira faktura horietatik.

8.- Kontratataren eskubideak eta betebeharrak

Kontratataren obligazioa da, lan harreman, gizarte segurantza eta laneko segurtasuna eta higienez gaitan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Administrazioa erantzukizunetik askatuta geratuko da, kontratatistak baldintzen bat bete ez duelako.

Gainera esleipendunak, gaur egun zerbitzu horiek ematen dituzten langileak hartu beharko ditu, aurreko esleipendunak zituen laneko eskubide eta betebeharrak subrogatua geratuz. Hartu beharreko langileen artean daude, baita ere, kontratataren titularitate aldaketa egiten denean, IT egoeran, amatasun-bajan, behin behineko ez gaitasun egoeran, eszedentzian, eta oportetean dauden langileak. Plegu honen I. Eranskinean ematen da, azpikontratatzan ari diren zerbitzuen, eta haietara atxikita dauden langileen zerrenda, eta haiei dagozkien hitzarmen, soldata, antzintasun etab.en berri.

1.- Prezio kopurua hartzeko eskubidea arau hauetara egokituko da:

- a) Hitzartutako prezioei jarraituz, preskripzio teknikoei eta behar bezala baimendutako aldaketei lotuta benetan egindako lanak ordainduko zaizkio kontratatari, beti ere egiten diren lanei dagozkien fakturak onatzen baditu Aretxabaletako Udalak.
- b) Kontratatistak ez du eskubiderik izango borondatez egindako berrikuntza edo hobekuntzak ordain dakizkion, nahiz eta onuragarria izan Administrazioarentzat.

Erreklamaziorik ere ez zaio onartuko aurrekontuetan ez datozen lanak eginez gero, baldin eta kontratazio organoaren baimenik gabe egin baditu, legez eskatzen diren formalitateei jarraituz.

Kasu batean ere ez du kontratatistak eskubiderik izango egindako lanak kobratzeko, paragrafo honetan eta aurrekoan xedatutakoaren kontra jardunez gero.

- c) Ordaintzeko, faktura egunetik 60 egunera ordainduko dira.

Kontratutako ordainketa egokiaren kontzeptua izango dute egindako ordainketek, eta lotuta egongo dira zerbitzuaren arduradun diren udal teknikariek egin ditzaketen txostenen ondorioz egiten diren zuzenketa eta aldaketei.

2.- Orri hauetan jasotzen direnez gain eta ordeko arauak aplikatzeagatik gertatzen direnez gain, hauek dira kontratataren betebeharrak bereziak:

- a) Behin-betiko bermea ezartzearena betearaztea hamabost asteguneko epean, adjudikazioa jakinarazten denetik hasita, eta hura osatzea hala behar denean.
- b) Kontratua formalizatzea, adjudikazio egintzan adierazitako epean.

Epe hori ez da hogeita hamar egun natural baino luzeagoa izango, adjudikazioa jakinarazten den

hurrengo egunetik kontatzen hasita.

- c) Preskripzio teknikoan orrietan aurreikusitako epeetan kontratatutako lanak burutzea.
- d) Aretxabaletako Udalaren aginduz zerbitzua aldatzea hartzea beregain, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan.
- e) Haiek egitea lanok, eta ezingo diote laga, guztian edo zati batean, kontratua beste pertsona bati, Aretxabaletako Udalak alde aurretik baimena eman gabe, eta lotuta egongo da ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 114. artikulua ezarritako baldintzei.
- f) Hamabost eguneko epean, izan litezkeen ezintasunak eta bateraezintasunak jakinaraztea.
- g) Zerbitzua emateko behar diren elementu guztiak bere kabuz erostea.
- h) Pertsonala nahiz zerbitzuari atxikitako makineria jartzea Aretxabaletako zerbitzurako bakarrik, Udalak agindu edo baimentzen dituen kasuetan izan ezik, edozein aldaketaren berri ematen, beti ere Udalak baimenduak izan beharko direlarik.
- i) Egoera onean mantentzea eta zaintzea materialak nahiz zerbitzura atxikitako instalazioak; eta beregain hartuko ditu mantentze lanak (berrazterketa teknikoak, obrak, e.a.) eta horiek erabiltzeak eskatzen dituen gastuak
- j) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordaintzea, besteak beste, aipatzekoak, Aldizkari Ofizialetan iragarkiek sortutakoak eta, hala badagokio, fidantzak jartzearen ondorioz eta eskritura publikoan, haren kopiez, kontratua formalizatzearen ondorioz sortutakoak.
- k) Lizitazioak eta kontratuak sortzen dituen tributu guztiak, estatukoak eta herrikoak, ordaintzea (tasak, kontribuzioak eta zergak).
- l) Lan harreman, gizarte segurantza eta laneko segurtasuna eta higienez gaitan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Aretxabaletako Udala erantzukizunetik askatuta geratuko da, kontratatistak baldintzen bat bete ez duelako.
- ll) Beste batzuei sortutako kalte guztiei erantzun eta kalte-ordaintzea, lanak egiteak eskatzen dituen operazioen ondorioz, eta betebeharrak ez betetzeak sortutako ondorioz, ekainaren 16ko 2/2000

Errege Dekretu Legegilearen 97 eta 211. artikuluen esanetan. Hartarako, hamabost eguneko epean, adjudikazioa jakinarazten denetik hasita, aseguru poliza baten kopia ekarriko du, eta baita hura ordaindu izanaren agiria, kontratuari datzekion arriskuak estaltzeko eta bereziki kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibilarena (orokorra, patronalarena eta gurutzatua), beste batzuei sortutakoak eta kontratistaren pertsonalaren, haren enplegatuen eta menpeko iraunkor eta behin-behinekoen egintzetatik datozenak, makineriaren eta erabilitako tresneriaren ondoriozkoak, eta baita adjudikazioan helburu den zerbitzua burutzean egindako lanen ondoriozkoak ere.

m)Gutxieneko zerbitzuak bermatzea, lanuzterik izanez gero, egoki izan litezkeen konpentsazioez aparte.

9. Lan Hizkuntza

Ahozkoa:

Udala eta enpresa esleipendunaren arteko harremana euskaraz izango da.

Idatzizkoa:

Enpresa esleipendunak Aretxabaletako Udalerako egindako dokumentazio idatzia (txostenak, memoriak, proposamenak, fakturak...) gutxienez euskaraz egon beharko du. Bi hizkuntzak erabiltzen badira, ale bakarrean aurkeztuko dira, euskarazko testua lehenengo eta atzealdean gaztelerakoa. Azalean euskarazko testua bakarrik agertuko da.

Euskarazko testuaren kalitatea: Euskarazko testuak argia eta ulergarria izan beharko du. Hau bermatzeko, behar izanez gero, Aretxabaletako Udalaren laguntza eta argibideak izango ditu esleipendunak.

Pleguetan jasotako hizkuntza baldintzak betetzen ez badira espedientea ireki dezake eta bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera utz dezake Udalak.

10.- Aretxabaletako Udalaren eskubideak eta betebeharrak

1.- Behar diren aginduak emango dizkio kontratistari Aretxabaletako Udalak, ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua, kontratuan datozen klausulen arabera, eta kontuan harturik udalaren ordezkariak zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak izango dituztela.

2.- Kontratistari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Aretxabaletako Udalak.

Bete ezean, kontratistak eskubidea izango du berandutza interesa jasotzeko, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 99. artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.- Kontratistaren arrisku eta benturara hitzartutzat jotzen da kontratua.

11.- Behin-behineko bermea

Lizitazioan parte hartzeko, nahitaez jarri behar dute lizitatzailleek, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako edozein modutan, behin-behineko berme bat, kontratuaren prezioaren %2a, hau da 1.674,4 euro, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 35. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

II. TITULUA

KONTRATUA ADJUDIKATZEKO MODUA

12.- Lizitazioaren publizitatea

Esku artean dugun kontratu prozesuan parte hartzeko proposamenak 26 egun naturaleko epean aurkeztu ahal izango dira, iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13.- Proposamenak aurkeztea

1.- Aretxabaletako Udaletxeko bulegoetan aurkeztuko dituzte lizitatzailleek proposamenak, lehen aipatu den epean, goizeko 9:00ak 13:00ak bitartean, (asteleheneetik ostiralera arte), lanegunetan. Eskaintza aurkezteko azken eguna jaieguna izanez gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko da epea.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak Klausula Administratiboan orrietan eta Preskripzio Teknikoen Pleguan aurreikusitako guztia.

Proposamenak behar den moduan aztertzeko, proiektua eta baldintzen orriak eskura egongo dira lehen aipatutako bulegoetan.

2.- Bi gutunazaletan aurkeztuko dituzte proposamenak, eta hemen jasotzen diren dokumentuak agertuko dituzte gutunazaletan:

1. Gutunazala. Titulua: "Aretxabaletako Udal eraikuntzak garbitzeko zerbitzua adjudikatzeko lehiaketan parte hartzeko proposamena ". Azpigitulua: "Nortasuna eta kaudimena ".

1.- Enpresaren edo enpresa lizitatuzaileen nortasun juridikoa kreditatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, haien ordezkariak.

Modu hauetako batean kreditatuko da nortasun juridikoa:

- a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NA, bere izenean edo ahalduen moduan, edo haren kopia kautotua.
- b) Lizitatuzaileak norbere izenean ez diharduenean edo hura sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, ahalordetze nahikoa ordezkariak duen pertsonal edo entitateordezkariak.
- c) Sozietate baten izenean diharduenean, eraketa edo sozietatearen estatutuen aldaketaren eskrituren kopia ere ekarriko da.
- d) Enpresa talde batek egiten duenean proposamena, gainera, enpresa guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentua aurkeztu behar dute, eta dokumentu horretan eratu behar den Enpresen Aldi Baterako Bateratzean bakoitzaren partizipazioa agertuko da, eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean enpresa horien guztien ordezkariak izango duen pertsona izendatu behar dute.

2.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak. Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 16. artikuluan agertzen diren moduetako batean kreditatu behar dute.

3.- Kaudimen teknikoa edo profesionalaren kreditagarria. Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 19. artikuluan agertzen diren moduetako batean kreditatu behar dute.

4.- Adierazpen erantzulea, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu legegilearen 20. artikuluan datozen gora-beheretako batean ere ez daudela erorita.

5.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzaren betetzen dituela agertzen duen kreditagarria, erakunde aginpidedunek egindako ziurtagirien bidez.

6.- Behin-behineko bermea jarri izanaren kreditagarria.

7.- Kontratista, U Taldean, 1 Azpitaldean, B kategorian sailkatuta dagoela kreditatuko duen agiria.

2. Gutunazala. Titulua: "Aretxabaletako Udal eraikuntzak garbitzeko zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketan parte hartzeko proposamena ". Azpigitulua: "Memoria eta eskaintza ekonomikoa ".

1.- Memoria: gutxienez kapitulu bereizi hauek jaso behar ditu:

a.- Enpresaren aurkezpena, haren esperientzia, zein giza, material eta ekonomia baliabide daukan, eraikin finkoak non dauden.

Esperientziaren gaian ziurtagiriak aurkeztu behar dira, erakundeak emandakoak, azken 5 urteotan enpresari adjudikatu zaizkion lanei buruz.

b.- Udal instalakuntzetan eman beharreko zerbitzuaren ezaugarri orokorreari buruzko azterketa, hauei buruz: zerbitzuaren antolaketa, kontrol sistemak, giza baliabideak (langile kopurua, egin beharreko kontratu kopurua eta motak, kontratazio berrietarako irizpideak, e.a.).

c.- OINARRIZKO ZERBITZUen ezaugarriari buruzko azterlana (bulegoetan: langileak, ordutegia, bulegoa garbitzeko behar diren orduak/eguneko, erabili behar diren baliabide teknikoak, prezioa/orduko, urteko kostua bulego bakoitzeko eta aldizkako garbiketaren guztien urteko kostua).

d.- ERABILERAREN ARABERAKO GARBIKETEN ezaugarri buruzko azterlana (bulegoetan: langileak, ordutegia, bulegoa garbitzeko behar diren orduak/eguneko, prezioa/orduko, erabili behar diren baliabide teknikoak).

e.- PREST JARTZEKO GARBIKETEN ezaugarri buruzko azterlana (bulegoetan: langileak, ordutegia, erabili behar diren baliabide teknikoak, egin behar diren lanak zehatz azaltzea, prezioa/orduko, orduak/zerbitzuko eta kostua/zerbitzuko).

f.- MATERIAL JAKIN BATZUEN GARBIKETARI buruzko azterlana (alfonbrak, gortinak edo errezelak, kuxinak eta koltxonetak), m²-ren prezioa materialean eta erabili behar den garbiketara sistema.

g.- APARTEKO GARBIKETEN ezaugarri buruzko azterlana, prezioa/orduko.

h.- Orri honetako baldintzei buruzko proposamenak hobetzea.

2.- Proposamen ekonomikoa, lizitatuak edo haren ordeztuak pertsonak sinatu du, eta VI. Tituluan agertzen den ereduaren arabera idatziko da. Eskaintako prezioetan kontzeptu guztiak sartuko dira, zergak, gastuak, tasak eta edozein eremu fiskaleko arbitrioak, hala nola, (BEZ) Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta etekin industrialak.

14.- Proposamenak ireki eta adjudikatzea.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ostean, garaiz eta formaz aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Kontratazio Mahaia. Kalifikazio hori egiteko, dokumentazioari (1. gutunazala) buruzko gutunazalak irekitzeko aginduko du mahaiburuak eta horietako bakoitzean agertzen diren dokumentuen zerrenda ziurtatuko du idazkariak. Aurkeztu den dokumentazioan akats materialik ikusiz gero Mahaia, hala iritiz gero, hiru astegun baino luzeagoa ez den epea eman ahal izango du, akatsa zuzendu dezan lizitatuak. Behar den dokumentazioa gutunazala itxita dagoela aurkeztuko da gutunazalak hasiera batean eman ziren bulego berean, lehen adierazi den ordutegian.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo astelehenean, arratsaldeko 17:30ean egingo du bilera Mahaia. Aurkeztu diren proposamenak irekiko ditu Mahaia jende aurrean (2. gutunazala) eta aktarekin eta adjudikazio proposamenarekin batera, adjudikatze irizpideen ponderazioa barne hartuko du kasu guztietan, kontratua adjudikatu behar duen kontratazio organoari bidaliko dio. Aldagaiak edo alternatibak aurkeztu ahal izango dituzte, beti ere preskripzio tekniko orrietan zehaztu diren gutxieneko prestazioak betetzen badituzte.

Proposamena egin baino lehen, egoki irizitako eta kontratuaren helburuarekin lotutako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu Mahaia.

Plikak ireki eta handik hilabeteko epean, egoki irizitako txosten teknikoak aztertu ostean, Kontratazio Mahaia Irekiera Akta eta adjudikazio proposamena bidaliko dizkio kontratazio organoari, aukeratu den enpresaren alde, hurrengo klausulan aipatzen diren adjudikazio irizpideak ponderatu ostean.

Kontratazio organoak ahalmena izango du kontratua adjudikatze, hurrengo klausulan ezarritako adjudikazio irizpideak aplikatuz, edo eskubidea izango du erabaki gabe deklaratzeko, baina kasu guztietan pleguan aipatzen diren adjudikazio irizpideak hartuko ditu aintzat erabakia emateko.

Adjudikazio akordioa eman gabe hiru hileko epea igarotakoan, lizitatuak eskubidea izango dute proposamena atzera botatzeko eta jarri duten behin behineko bermea itzul dakien edo deuseztatu dakien.

15.- Lehiaketa adjudikatze irizpideak

Irizpide hauei jarraituz erabakiko da lehiaketa:

1.- Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu. Jarraian adieraziko den moduan banatuta:

Udalak eskaintako eskaintza baino %0 gutxiago = 0 puntu

Udalak eskaintako eskaintza baino %3 gutxiago = 15 puntu

Udalak eskaintako eskaintza baino %3tik %7ra bitarteko jaitsiera = 35 puntura arte

Udalak eskaintako eskaintza baino %7tik %10ra bitarteko jaitsiera = 50 puntura arte

Udalak eskaintako eskaintza baino %10etik gorako jaitsiera = 50 puntu

2.- Pertsonalaren eta erabili beharreko makineriaren ezaugarriak: 20 puntu.

Kontratazio berrien politika, laneratze arazoak dituen pertsonala, emakumeak, etorkinak, etab... Laneratze arazoak dituzten pertsonen kontratazioa. Enpresan konpromisoa, lanak egingo dituen plantila gizarte eskusio arriskua duten edo eskusio egoeran dauden pertsonekin osatuta egongo dela.

Puntuazio portzentaia aplikatzeko, kontratua gauzatuko duen plantilaren %20a izan beharko da gutxienez arestian aipatutako talde horietakoa.

Giza baliabideen justifikazio kalkulak egitea: momentu orotan beharrezkoa den langilerari dagokion koadroak eta datuak (ohiko zerbitzua eta oporrak)

Administrazio, antolaketa eta lanen kontrolerako (enkargatua) langileen dedikazioa .

3.- Eman beharreko zerbitzuen ezaugarri orokorrak (ezaugarri orokorrak, erabili beharreko pertsonalaren plana, zerbitzuko egunak eta ordutegia, zerbitzu bakoitzeko orduko prezioak): 20 puntu.

4.- Antzeko lanetan duen esperientzia: 5 puntu.

5.- Preskripzio teknikoaren orrietan proposatutako hobekuntzak: 5 puntu.

Lan merkatuaren talde eta pertsona baztertuen lan gizarteratzeari dagokion esleipen irizpideari dagokionez, ondorengoak aurkeztu beharko dira:

- Zinpeko aitortpena, kontratu hau gauzatu ahal izateko plantilaren portzentaia bat, (zehaztu pertsona kopurua ere), bazterketa egoeran dauden edo arriskua duten pertsonak izango direla ziurtatuz.
- Posible balitz zein kolektibotakoa den edo ze ezaugarri dituzten adieraziko da (minusbaliotasuna duten pertsonak, iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorakoak, genero indarkeria jasan duten, eta harrera programetan dauden emakumeak, etxerik gabekoak, etorkinak edo datozen emigratzaileak, gutxiengo etnikoak, errenta minimoaren hartzaileak, giza bermeko programetatik datozenak, eskolatu gabeko gazteak edot lehen lana aurkitzen direnak, guraso bakarrek familiakoak diren emakumeak, etab...)
- Lan Programa esplikatuko duen memoria, beti ere kontratatu nahi diren, laneratze arazoak dituzten taldeei dagokienez, adieraziz, hautaketa sistema, laneratzea ahalbidetuko duen langileria teknika eta laguntza plana, balego espresuki adieraziz.

III. TITULUA

KONTRATUA HOBETZEA

16.- Behin-betiko bermea

Hamabost asteguneko epean, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako moduetako batean, lizitazio oinarriaren %4ko zenbatekoa jarri izana kreditatu behar du kontratistak. Baldintza hori bete ezean, kontratistari egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratua suntsiarazteko akordioa hartu ahal izango du Administrazioak.

Kontratua aldatzearen ondorioz haren prezioa ere aldatuz gero, bermea berregokituko da aurreko atalean adierazitako epe berean, kontratua aldatzearena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Alkatearen erabakiz itzuliko zaio behin-betiko bermea kontratistari, berme epea mugaeguneratu ostean eta kontratua behar bezala bete ostean edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazten denean.

17.- Formalizatze dokumentua

Dokumentu administratiboan formalizatu behar du kontratua kontratistak, hogeita hamar egun naturaleko epean, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Baldintza hori bete ezean, kontratistari egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratua suntsiarazteko akordioa hartu ahal izango du Administrazioak.

Eskritura publikoan egin nahi izanez gero kontratua kontratistak, haren kontura joango dira eskritura horren gastuak.

IV. TITULUA

KONTRATUA BETEARAZTEA

18.- Kontratua hasi

Kontratuan jartzen den egunean hasiko dira kontratatutako lanak.

Orri hauetan eta klausula teknikoan orrietan datozen klausulei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Aretxabaletako Udalak ematen dituen jarraibideen arabera.

Kontratua aldatu ahal izango du Aretxabaletako Udalak, interes publikoko arrazoiengatik, beste behar batzuk daudelako edo ustekabeko arrazoiak daudelako, eta kontratistak ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 214.c artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

19.- Epeak betetzea

- 1.- Kontratista behartuta dago jarritako bukaerako epea nahiz zatikako epeak betetzera.
- 2.- Zatikako epeei buruz berandutzan eroriz gero kontratista, berari egotz dakizkiokeen kausengatik, ezarritako epe osoa betetzeko ezintasuna duelako susmoarekin edo epea bete gabe geratuz gero, hauetako bat aukeratu ahal izango du Administrazioak batetik, kontratua suntsiaraztea, fidantza galduko luke kontratistak, edo, bestetik, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 95. artikuluan ezartzen diren penaltateak ezartzea.
- 3.- Lanak geldiarazi, eten eta bertan bera utziz gero, hitzartutako epean ez egitearekin parekatuko da.
- 4.- Kontratistak zerbitzua berandu betetzeak ez du errekeritzen Administrazioak alde zuzenetik interplatzea edo ohartaraztea.
- 5.- Penaltateak ordaintzearenak ez du baztertzen Udalbatzak izan dezakeen eskubidea kalte ordaintzeko, kontratistari egotz dakizkiokeen atzerapenengatik sortutako kalte-galeren truke.
- 6.- Atzeratzea oro har kontratistari egotz ez dakizkiokeen zioengatik gertatuz gero, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

20.- Santzioak

Kontratuaren betetzean berandutuz gero esleipenduna, Udalak kontratua suntsituzat joko du edota zigorrak ezarri ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileko 95. artikuluan jasotzen duen moduan.

Gainera, santzionatzeko jardunbideak hasiko ditu kasu hauetan eta santzio hauekin:

- a.- Egiaztatuz gero lana behar ez den bezala edo txarto egin duela, 60 euroko santzioa jarriko zaio, egoera hori mantentzen den egun bakoitzeko.
- b.- Zerbitzuaren helburu den zentro edo bulegoaren ohiko martxa oztopatzea dakarten atzerapen justifikaezinak izanez gero, 30 euroko santzioa jarriko zaio enpresari.
- c.- Garbitzeko materiala falta izanez gero, eta horren ondorioz oso-osorik edo zati batean betetzen ez badira zerbitzuaren betebeharrak instalazioetako batean, 30 euroko santzioa jarriko zaio enpresari.
- d.- Aretxabaletako Udalak ematen dituen norabide eta aginduetara zorrotz egokitzen ez denean kontratista, edota orri horietan esaten denari, 60 eurorainoko santzioa jarriko da, arau-haustearen larritasunaren arabera, Udalaren iritziz.

Alkateak ezarriko ditu santzioak, kontratistari entzundakoan, eta hirigintza eta zerbitzu batzordearen proposamenez.

21.- Kontratua lagatzea eta azpi kontratazioa

Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakora egongo da.

V. TITULUA

KONTRATUA IRAUNGITZEA

22.- Kontratua suntsiaraztea

Kontratua suntsiarazteko kausak dira, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 99.6, 111, 112 eta 214. artikuluetan jasotakoak.

Suntsiaraztearen ondorioei dagokienez, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 113. eta 215. artikuluetan araututakora egongo da.

23.- Bermearen epea

Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 110.3. artikuluan adierazitakoaren arabera, fakturatutako kontratu kontzeptu bakoitzak bi hileko gutxieneko berme-epe bat izango du, fakturatutako lanak egin diren egunetik kontaktzen hasita. Berme epe hori hobetu egin ahal izango dute lizitatzaileek, haien eskaintzetan.

Kontratua amaitzeari dagokionez, kontratua beteta dagoela ulertuko da, helburu osoa bete duenean kontratistak, kontratuan esaten denaren arabera eta Administrazioarekin ados jarrita.

VI. TITULUA

PROPOSAMEN EREDUAK

a.- Orokorra.

Izena: Helbidea:
Nortasun Agiria: Non egina:
norbere izenean edo, ren izenean, helbide soziala (non)
eta Identifikazio Fiskaleko Kodearen zk., hauxe **adierazten dut**:

1.- Lehiaketa irekiaren bidez, Aretxabaletako udal eraikuntzak kontratazioari buruzko klausula ekonomiko-administratiboen eta preskripzio teknikoen orrien berri jakin dut, eta oso-osorik onartzen ditut.

2.- Nire ardurapean aitortzen dut, batetik, enpresa lizitatzaile honek gaitasun juridikoa duela eta nahiko baliabide duela zerbitzu hori emateko, zerbitzu hori emateko eskatzen diren baldintza espezifikoak jasotzen dituela eta, bestetik, indarrean dagoen legerian aipatzen diren debeku kasuetako batean ere ez dagoela sartuta.

3.- Esandako guztiarekin bat, konpromisoa hartzen dut, SOILIK OINARRIZKO ZERBITZUEI, - erabileraren araberako garbiketak, puntuak jartzeko garbiketak, eta material zehatzen garbiketak- DAGOKIENEZ, kontratuaren zerbitzua emateko, urteko
..... eurotan . (JARRI HIZKIZ ETA ZENBAKIZ).

4.- Proposamen ekonomiko banakatua aurkezteko konpromisoa hartzen dut, Udalarentzako loteslea izango ez dena, hau da ezarritako lokal bakoitzeko urteko kostuarena, eta guztiaren batura. 3. puntuak adierazitako %100arekin bat etorri beharko da, alegia.....(JARRI HIZKIZ ETA ZENBAKIZ).

5.- Esandako guztiarekin bat, konpromisoa hartzen dut, APARTEKO GARBIKETEI DAGOKIENEZ, kontratuaren zerbitzua emateko, ORDUKOeuroko prezioan.

6.- 2007ko urtearen erdia aldera amaituta egongo den, Liburutegia, Kultura Etxea eta Musika Eskola hartuko dituen eraikinaren garbiketari dagokion proposamen ekonomikoa aurkezteko konpromisoa hartzen dut, Udalarentzako loteslea izango ez dena, URTEKOeuroko prezioan. (JARRI HIZKIZ ETA ZENBAKIZ).. Garbiketa horiek, erabileraren araberakoak izango dira; baita puntuak jartzeko garbiketak, eta material zehatzen garbiketak ere.

Tokia, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA.

ARETXABALETAKO UDAL ERAIKUNTZAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO ETA LAN
MERKATUAN SARTZEKO ARAZOAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK GIZARATERATZEKO LEHIAKETA
PUBLIKOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK TEKNIKOEN PLEGUA.

I. TITULUA. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen helburua da, udal jabetzakoak diren hainbat eraikinen garbiketa zerbitzuak ematea eta lan merkatuan sartzeko arazoak dituzten kolektiboak gizarateratzea.

Eman beharreko zerbitzuak bi motatakoak izan litezke:

- Oinarrizko garbiketa lanak.
- Aukerako garbiketa lanak:
 1. Ematen zaien erabileraren araberako garbiketa lanak.
 2. Prestatze garbiketa lanak.

3. Material zehatzen garbiketa.
4. Ez ohiko garbiketak.

II. TITULUA. OINARRIZKO GARBIKETA LANAK

A. ZENTROAK ETA BULEGOAK

- a) Udal Bulegoak:
 - Udal Liburutegia
 - Kultur Etxea eta Gaztelekua.
 - Musika Eskola
 - Markole Auzoko lokalak: AZK eta EPA
 - Udaletxea
 - Komun publikoak
 - Durana 11. Euskal Txokoa.
 - Udal Biltegia
 - Urkuluko komunak
 - Galartzako Dorretxea.
 - Basotxo.
- b) Ikastetxeak:
 - Kurtzebarri Eskolak.

B. ZENTROEN DESKRIBAPENA

1.UDAL LIBURUTEGIA

- Kokapena: Larrin Plaza,5.
- Liburutegi publikoa.
- Deskribapena: 192 m2ko lokala da eta bertan erabilera komuneko instalazio batzuk daude: irakurtzeko bi gela (oina bakoitzean bana) komunak eta liburutegiko gela bat.
- Garbiketa egiteko egutegia: 11 hilabete, irailetik uztaileira biak barne. Abuztuan itxita egoten da. Guztira urtean 240 garbiketa-egun.
- Garbiketa maiztasuna: Egunero.
- Garbiketa lanen antolaketa: Garbiketaldi bakoitzean mantentze garbiketa lana egingo da.

2. KULTUR ETXEA ETA GAZTELEKUA.

- Kokapena: Iralabari Plaza,5,6,13 eta 14.
- Bulego orokorra, taldeentzako gela, zeramika klaseak, pintura klaseak, eskulanen klaseak, hitzaldietarako aretoa eta komunak.
- Gaztelekua: Erabilera orokorreko gela, biltegia eta komuna.
- Deskribapena: 280 m2ko lokalak.
- Garbiketa egiteko egutegia: 11 hilabete, irailetik uztaileira biak barne. Abuztuan itxita egoten da. Guztira urtean 240 garbiketa-egun.
- Garbiketa maiztasuna: astelehenetik ostiralera.
- Garbiketa lanen antolaketa:
 - Egunero paperontziak hustu egin beharko dira.
 - Sarrera, eskailerak, bulegoa eta komuna egunero garbitu beharko dira.
 - Gelak egunero garbitu beharko dira.
 - Astero kristalak garbitu egin beharko dira, bai kanpotik baita barrutik ere.

3. HHI (EPA) eta KZ GUNEA.

- Kokapena, Markole auzoa,5-behea.
- Helduentzako klaseak ematen dira HHIko bi geletan eta KZ guneko gela, informatikarekin zerikusia duten jarduerak aurrera eramateko erabiliko da.
- Deskribapena: 184 m2ko lokala. Bertan 3 gela daude: 2 erabilera askotarako (HHI-EPA) gela bat KZ GUNErako eta komunak.
- Garbiketa egiteko egutegia: 10 hilabete, irailetik ekainera biak barne. Uztailean eta Abuztuan itxita egoten dira. Guztira urtean 221 garbiketa-egun.
- Garbiketa maiztasuna: Egunero.
- Garbiketa lanen antolaketa: Garbiketaldi bakoitzean mantentze garbiketa lana egingo da.
- Astero kristalak garbitu egin beharko dira, bai kanpotik baita barrutik ere.

4. UDALETXEA.

- Kokapena: Otorra Kalea,1.
- Bulegoak eta jendearen harrerarako zonak.
- Deskribapena: 441 m2ko lokala. Bertan bi solairu eta ganbara bat daude. Bulego irekiak daude hainbat mahaiekin; bulego itxiak, bilera gelak, jendearen harretarako leihatilak, komunak, artxiboak etab.

- Garbiketa egiteko egutegia: 12 hilabete, irailetik abuztura biak barne. Guztira urtean 249 garbiketa-egun.
- Garbiketa maiztasuna: astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik, astean bi bider egin beharko baita.
- Garbiketa lanen antolaketa:
- Eguneroko paperontziak hustu egin beharko dira.
- Eguneroko leihatilen zona, komunak, eskailerak eta gune nagusiko pasilloak, alkatezaren bulegoa, brigaden eta udaltzainen aldagelak, bilera gelak eta pleno aretoa garbitu beharko.
- Astean 5 bider komunak.
- Astean hiru bider, bulegoak eta gainontzeko eskailera eta pasilloak.
- Astean bi bider, lan mahaik dituzten lokalak, baita mahai horiek eta ofimatika materiala ere.
- Hilero artxiboa eta material biltegia garbitu beharko dira.
- Hiru hilabetez behin, zoruak, sabaia, paretak, zokaloak, apalategiak, lanparak, altzariak eta ordenagailuak garbitu beharko dira.
- Astero kristalak garbitu beharko dira, barrutik eta kanpotik.

5. KOMUN PUBLIKOAK.

- Kokapena: Otalora Kalea,2.
- Herritarrentzako komunak.
- Deskribapena: 54,36 m2. Komun publikoak emakumeentzako eta gizonentzako.
- Garbiketa egiteko egutegia: hamabi hilabete, irailetik abuztura, 249 egun urtean.
- Garbiketa maiztasuna: astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik, astean bi bider egin beharko baita.
- Hilero sabaia eta paretak garbitu beharko dira.
- Eguneroko garbiketa lan orokorra egingo da.

6. DURANA KALEA 11. EUSKAL TXOKOA.

- Kokapena: Durana Kalea,11.
- Kultur talde ezberdinentzako lokalak.
- Deskribapena: 434 m2. Beheko solairuan Loramendi Kultur Elkartearen bulegoak daude eta komunak. Lehenengo solairua taldeentzako lokalak daude, eta Loramendi Kultur Elkartek hitzaldietarako erabiltzen duen gela. Bigarren solairuan Aretxagazeta eta Herri Komunikabideak daude, eta ganbaran Loramendi Kultur Elkartearen biltegia dago.
- Garbiketa egiteko egutegia: hamaika hilabete, irailetik uztaiera, 96 egun.
- Garbiketa maiztasuna: Astean bi bider.
- Garbiketa lanen antolaketa:
- Garbiketaldi bakoitzean garbiketa mantentze lana egingo da.
- Hiru hilabetez behin zoruak, sabaia, paretak, zokaloak, apalategiak, kanpoko kristalak, lanparak, altzariak eta ordenagailuak garbitu beharko dira.
- Astero kristalak garbitu beharko dira, barrutik eta kanpotik.

7. KURTZEBARRI ESKOLAK.

- Kokapena: Santakurtz Kalea,20.
- Klaseak ematen dira.
- Deskribapena: 2.863 m2.ko lokala. Bertan beheko solairua eta beste bi daude.
- Beheko solairuan, harrera, 7 ikasgela, jantokia, komunak eta zuzendaritzaren gelak daude.
- Lehenengo solairuan, 12 gela, irakasleen gela eta erabilera askotako sei gela daude.
- Bigarren solairuan liburutegia dago eta teilaturako irteera.
- Garbiketa egiteko egutegia: hamar hilabete, irailetik ekainera, uztaiera eta abuztuan itxita egoten baita. 180 garbiketa egun.
- Garbiketa maiztasuna: Eguneroko garbiketa astelehenetik ostiralera.
- Eguerditan jangelak eta ondoan dauden komunak garbitu beharko dira.
- Garbiketa lanen antolaketa:
- Eguneroko paperontziak hustu egin beharko dira.
- Eguneroko eskolaurreko gelak garbitu beharko dira (8 ikasgela) erraztu eta fregatu.
- Astean hiru bider Lehen Hezkuntza lehen mailatik laugarren mailara bitarteko gelak erraztu eta fregatu egin beharko dira (8 ikasgela)
- Lehen hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako gelak astean hiru bider erraztu beharko dira eta fregatu astean bi bider
- Astean bi bider bulegoak, eta bilera gelak erraztu eta fregatu egin beharko dira.
- Astean bi bider erabilera askotako 5 gela erraztu eta fregatu egin beharko dira.
- Astean behin, gainontzeko erabilera askotako gelak erraztu eta fregatu egin beharko dira.
- Astean behin, astelehenetan, goizeko 9:00ak baino lehen, sarreran eta arkupeetako kantoiak garbitu eta desinfektatu egin beharko dira.

- Gabonetako, Aste santuko eta Abuztuko oporretan garbiketa orokorra egingo da: zoruak, sabaia, paretak, zokaloak, apalategiak, kanpoko kristalak, lanparak, altzariak eta ordenagailuak garbitu beharko dira.
- Astero kristalak garbitu beharko dira, barrutik eta kanpotik.

8. UDAL BILTEGIA.

- Kokapena: Basabe Poligonoa A-6
- Lokalak. Obra eta Zerbitzuen udal brigadaren (lau langile) aldagelak eta komunak
- Deskribapena: 30 m². Beheko oinean, aldagela bat eta komunak, lababoak dutxak eta komunak.
- Garbiketa egiteko egutegia: hamabi hilabete urtean.
- Garbiketa maiztasuna: Astean birritan.
- Garbiketa lanen antolaketa: Garbiketaldi bakoitzean garbiketa mantentze lana egingo da.
- Hiru hilabetez behin garbiketa orokorra egingo da.

9. URKULUKO KOMUN PUBLIKOAK.

- Kokapena: Urkuluko Urtegia.
- Egurrezko txabola. Bertan komun aurea eta lababoak ditu eta bi komun.
- Deskribapena: 30 m²ko komun aurea, lababoa eta komunak, altzairu herdoilgaitzezko tresnak. Hormigoizko zoladura eta sabaia eta paretak egurrezkoak.
- Garbiketa egiteko egutegia: hamabi hilabete urtean.
- Garbiketa maiztasuna: Egunero egin beharko da, baita larunbata eta igandetan. **365 egun urtean.**
- Garbiketa lanen antolaketa: Garbiketaldi bakoitzean garbiketa mantentze lana egingo da. Hiru hilabetez behin garbiketa orokorra egingo da.

11.- BASOTXO.

Kokapena: Errekabarren 10.

Zaharren egoitzako eraikinean dauden lokalak.

Deskribapena: Tabernaren ondoan dagoen sukalde-jangela, 48m² dituena; bulegoa eta liburutegia, biak batuta 38,50 m² dutenak; telebista gela, 50 m²koa, eta ileapaindegirako erabiltzen den lokala 11,50 m²koa. (Garbiketa zerbitzu honen barruan ez da sartzen tabernaren garbiketa eta zaharren egoitzako gelena).

Lan egutegia: astean hirutan, astelehen, asteazken eta ostiraletan.

- - Garbiketa zerbitzuaren antolamendua: Mantentze garbiketa egingo da, garbiketaldi bakoitzean. Hiru hilabetez behin garbiketa orokorra egingo da.
- Maiztasuna: Urte osoan zehar.

12. LASTER AMAITUTA EGONGO DEN, KULTUR ETXEA, LIBURUTEGIA ETA MUSIKA ESKOLA HARTUKO DITUEN, ERAIKIN BERRIAREN GARBIKETA.

- Kokapena: Santakurtz kalea 20.
- Klaseak ematen dira.
- Deskribapena: 2.355 m² guztira. Banaketa: Sotoa, etxabea, lehenengo solairua, bigarren solairua, hirugarren solairua eta Teilatupea edo Ganbara.
- Sotoa: 384 m² guztira. Bertan daude, bi biltegi, banaketa egiten duen pasiloa, komunikaziorako eskailerak eta instalazioak.
Gizonezkoen komuna: (15 m²), eta emakumeen komunak (16m²)
Gaztelekua, sotoan dago, eta gainera 3 lokal musika taldeentzat. Horretaz gain banaketa egiten duen espazio bat dago.
- Etxabea (guztira 268 m²). Bertan Areto nagusia dago (80m²) sarrera, eta pasilo orokorrak. Gaztelekua, 74.93 m²koa, sukaldea (12m²) eta bulegoa bat (92) dituena.
Erakusketa aretoa, zona komunak eta pasilo orokorrak. Guztira 192.50 m².
- Lehenengo solairua: (462 m²) Liburutegia, gizonentzako komunak, emakumeentzako komunak, eskailera nagusia, eta bigarren mailako beste bat.
- Bigarren solairua: (418 m²) Kultur Etxea, gizonezkoen komunak, emakumeenak, tailer handi bat eta bi ertain, Idazkaritza eta Zuzendaritza eta Bilera gela bat.
- Hirugarren solairua: (407 m²) Musika Eskola, gizonen eta emakumeen komunak, erabilera askotako gela, lau ikasgela, idazkaritza, zuzendaritza eta artxiboa-biltegia.
- Teilatupeko gela edo ganbara: (220 m²) Musika Eskola, 10 gela 8 m²koak, banaketarako pasiloa eta bi dutxa.
- Garbiketa egiteko egutegia: 11 hilabete, irailtik uztaileira biak barne. Abuztuan itxita egoten da.
- Garbiketa maiztasuna:
- Paperontziak egunero hustu egin behar dira.
- Komunak, aldagelak eta pasiloak egunero garbitu behar dira.
- Ikasgelak ere egunero garbitu behar dira.

- Astean hiru egunetan, Gaztelekua erraztu eta garbitu egin behar da.
- Gainontzeko ikasgela eta bulegoak, astean hiru bider erraztu behar dira, eta birritan urarekin garbitu.
- Astean birritan bulegoak, despatxoak, eta bilera gelak erraztu eta urez garbituko dira.
- Astean behin, astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen, sarrerak eta arkupeetako kantoiak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Gabonetako, Aste Santuko, eta Abuztuko oporretan garbiketa orokorra egingo da: lurrak, paretak eta sabaiak, zokaloak, kristalezko apalak, lanparak, altzariak eta ordenagailuak garbituko dira.
- Astero kristalak garbituko dira, kanpotik eta barrutik.

III. TITULUA. AUKERAZKO GARBIKETA LANAK.

A. GARBIKETA, ERABILERAREN ARABERA. 1. ZENTROAK ETA BULEGOAK.

2. ZENTROEN DESKRIBAPENA.

2.1 GALARTZAKO DORRETxea.

- Kokapena, Galartza Auzoa.
- Erakusketa anitzetarako gela.
Deskribapena: 475 m²ko lokala. Beheko oina, lehenengo solairua, bigarrena eta ganbara ditu. Solairu bakoitzean erakusketetarako gelak daude, sarreran beheko oinean dago eta gainera eskailerak eta komunak ditu.
- Garbiketarako maiztasuna eta lan egutegia: Hiruhilabetez behin egingo da, barne kristalen garbiketa kanpo aldetik eta barru aldetik.

B. PRESTATZE GARBIKETAK.

Oinarrizkoak baina zehaztasun handiagoz egiten diren garbiketa lanak dira. Urtean behin egiten dira, eta helburua da, oinarrizko zerbitzuko garbiketa osatzea, esleipendunak zehaztuko dituen lan zehatzagoak eginez.

1. ZENTROAK ETA GELAK.

- Udaletxea.
- Eskoletako garbiketa.
- Durana 11, Euskaltxokoa.

C. MATERIAL ZEHATZEN GARBIKETA.

Zentro desberdinetan dauden materialen garbiketa litzateke: alfonbrak, gortinak, kojina, eta koltxonetak. Hasieran, urtean behin egingo da garbiketa mota hau, eta Udalak adieraziko du kasu bakoitzean, zer den garbitu beharrekoa. I Eranskinean, dauden materialak adierazten dira.

